
LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES



EUSKADIKO EGOERA SOZIOLABORALA

2024KO I. SEIHILEKOA

Lan Harremanen Kontseiluaren informazio-planaren parte da seihilekoko txosten hau, 2024ko urtarrila-ekaina aldiari dagokiona. EAEko egoera sozioekonomikoa aztertzea du helburu, eta negoziazio kolektiboa eta Gizarte Segurantzako afiliazioa dira ardatz nagusiak.

2024ko iraila.


1. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA, LANEKO GATAZKAK ETA ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK	4
1.1- NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA.....	4
1.2-2024RAKO HITZARTUTAKO SOLDATA IGOERAK.....	9
1.3- HITZARMEN KOLEKTIBOEN INAPLIKAZIOAK EAE-N.....	12
1.4- GREBAK.....	14
1.5 – PRECO-N AURKEZTUTAKO GATAZKAK.....	15
1.6- ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK.....	17
2. AFILIAZIOA ETA LANGABEZIA.....	19
2.1- GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA.....	19
2.2- LANGABEZIA TASA	22

1. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA, LANEKO GATAZKAK ETA ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA

1.1.-NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA

2024ko lehen sei hilekoaren amaieran, EAEko langileen % 60,1ek eguneratuta zuen bere hitzarmena (erabateko indarraldia); % 35,3ren kasuan, hitzarmenak luzatuta zeuden; eta soldatapeko biztanleriaren % 4,6k soilik zuen hitzarmena indargabetuta. Datu horiek 2023ko emaitza bikainak gainditzen dituzte: urte horretako ekainaren amaieran, langileen % 52,9k zuen hitzarmena indarrean.



Negoiazioen erritmoa ez da oso bizia izan lehen sei hilabete horietan: biztanleria langilearen % 7,8k soilik berriitu ditu bere hitzarmenak. Hala ere, hitzarmen gehienek bi urtetik gorako indarraldia baimentzen dute, eta, ondorioz, aurreko urtean

¹ Indarrean dauden hitzarmenak: negoziatzaileek adostutako aplikazio-aldi arruntaren barruan dauden hitzarmenak.


Indarraldi luzatuta duten hitzarmenak: aplikazio-aldi arrunta amaitu ondoren luzapen-egoeran edo aurreraeragin-egoeran dauden hitzarmenak.

Indargabetutako hitzarmenak: salatu ondoren eta aurreraeragin-aldi legal edo konbentzionalaren ondoren indarraldia galdu duten hitzarmenak, estaldura ematen dion goragoko mailako hitzarmenik ez dagoenean.

egindako hitzarmenak direla eta, 2024 hasieran, biztanleria langilearen % 52,3k zituen dagoeneko baldintzak eguneratuta.

Hitzarmenak indargabetuta dituzten pertsonen ehunekoa % 5etik behera murriztu ahal izan da, funtsean, 2023an Gipuzkoako Ostalaritza Hitzarmena sinatu zelako eta 2024an Arabako Elikadura Komertzioaren hitzarmena berreskuratu zelako. Azken hori indargabetuta zegoen.

2. GRAFIKOA
EAE-KO LANGILEEN BANAKETA, EHUNEKOTAN, HITZARMENAREN
INDARRALDIAREN ARABERA (SEKTOREA/ENPRESA)




Eremu funtzionalen (sektorea/enpresa) arabera, urteko lehen erdian zehar 138 enpresa-hitzarmen erregistratu zituzten eta horiek ia 21.512 pertsonari eman zien estaldura. Era berean, 35 sektoreko hitzarmen sinatu zituzten, 32.070 pertsonari baino gehiagori eragiten ziotenak.

Negoiazio kolektiboetan aurrerapauso handiagoak eman dira enpresen arloan: langileen % 12ren hitzarmenak berritu dira 2024an, sektoreko hitzarmenen mende dauden langileen kasuan, berriz, % 6,6renak. Aurreko urtetan egindako hitzarmenen ondorioz, seihilekoaren amaieran, sektoreko hitzarmenen mende dauden pertsonen % 62,4k zuen hitzarmena eguneratuta eta enpresa-hitzarmenen mende dauden langileen kasuan, % 53,3 ziren soilik (erabateko indarraldia).

Lurralde-eremuaren arabera (EAE/Estatua), 2024an gure erkidegoaren barruan 123 hitzarmen (16 sektorekoak eta 107 enpresakoak) erregistratu ziren, 37.785 pertsonari estaldura eman zietenak. Estatuan, berriz, EAEn eragina zuten 50 hitzarmen erregistratu zituzten (31 enpresakoak eta 19 sektorekoak), 15.797 pertsonari eragin zietenak.

3. GRAFIKOA EAE-KO LANGILEEN BANAKETA, EHUNEKOTAN, HITZARMENAREN INDARRALDIAREN ARABERA (EAE/ESTATUA) (1)



(1) EAE: EAEn negoziatutako hitzarmenak.

Estatu: EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenak.

Hilabete hauetan zehar EAEn Estatuan baino aurrerapauso handiagoak eman diren arren negoziazioen arloan, sei hilekoaren amaieran, EAEko negoziazioen eraginpean zegoen biztanleria langilearen % 58,9k zituen bere baldintzak eguneratuta. Aldiz, ehuneko hori % 63,1koa zen gure erkidegoan eragina duten estatuko hitzarmenen kasuan. Izan ere, hasierako egoera hobea zen azken arlo horretan: 2024 hasieran, langile horien % 57,2k negoziatuta zituen dagoeneko bere hitzarmenak.

Lurralde-eremuen araberrako analisiak erakusten duenez, aurrerapen handienak, batez ere, Araban izan ziren ekitaldiaren hasieratik.

2024ko lehenengo sei hilabeteetan zehar 5 sektore-hitzarmen eta 24 enpresa-hitzarmen sinatu zituzten Araban. Horiek, denen artean, 8.538 pertsonari baino gehiagori eman zieten estaldura. Sinatutako sektore-hitzarmenen barruan, honakoak nabarmendu behar dira: Eraikuntzako, ia 3.000 soldatapeko langileri eragiten diena, eta Elikaduraren Merkataritzako, 1.100 pertsonari baino gehiagori eragiten diena. Horren guztiaren ondorioz, urtearen

hasieran Arabako langileen % 49,6k zituzten eguneratuta haien hitzarmenak eta, lehenengo seihiilekoaren amaieran, % 63,3k.

Bizkaian, aldi horretan bertan, sektoreko 5 hitzarmen erregistratu dira eta 10.000 pertsona baino gehiago barne hartu dituzte. Garrantzitsuenak Elikaduraren Merkataritzakoa, 5.000 pertsona baino gehiagorekin, eta Kirol Arloko Lokal eta Zelaietakoa, 2.800 pertsonarekin, izan dira. Gainera, 56 enpresa-hitzarmen sinatu dira, ia 6.000 enplegurentzat. Bizkaian hitzarmenak eguneratuta dituzten langileen ehunekoa urte hasieran % 53,7 izatetik ekainaren amaieran % 62,5 izatera igaro da.






Gipuzkoako lurralde historikoari dagokionez, 5 sektore-hitzarmen sinatu dira eta ia 4.000 enpleguri eragiten die. Enpleguaren bolumenagatik, garrantzitsuenak Esku Hartze Sozialeko hitzarmena (1.300 pertsona baino gehiago) eta Bideen Garbiketa Publikoa eta Hondakinen Bilketa hitzarmenak dira (ia 1.600). Enpresa-hitzarmenei dagokionez, seihiilekoan zehar, 26 hitzarmen erregistratu dira lurraldean eta 6.500 pertsona baino gehiago barne hartu dituzte. Ondorioz, hitzarmenak eguneratuta zituzten langileen ehunekoa % 60,9tik % 67,9ra igo zen.

Lurralde arteko eremuari dagokionez, sektore-hitzarmen bat erregistratu da, Osakidetza Garbiketako Enpresa Emakidadunena, eta enpresa-hitzarmen bat. Guztira, 2.701 pertsona barne hartu dituzte hitzarmen horiek. Erkidegoko arlo horretan, hitzarmenak luzapenean dituzten pertsonen ehunekoa altuagoa da (% 91,8) seihiilekoaren amaieran, baina ez dago indargabetutako hitzarmenik.

EAEn eragina zuten estatu-mailako 19 sektore-hitzarmen erregistratu zituzten, 9.500 pertsonari baino gehiagori estaldura ematen zietenak, eta 31 enpresa-hitzarmen, 6.000 langileri baino zerbait gehiagori estaldura ematen zietenak. Duten garrantziagatik, Unibertsitate Hezkuntzako eta Ikerketako Zentroen hitzarmena (2.500 pertsona baino gehiago) eta Kirol Instalazio eta Gimnasioetako (2.400 baino apur bat gutxiago) dira adierazgarrienak. Denak kontuan hartuta, ekainaren amaieran langileen % 63,1ek eguneratuta zituzten haien hitzarmenak (urte hasieran % 57,3k).

4. GRAFIKOA

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA 2024AN, EAE-KO LURRALDE EREMUIEN ARABERA



2024ko urtarrilaren 1eko datuak

2024ko ekainaren 30eko datuak

- Hitzarmenak indargabetuta dituzten eta babesten dituen goragoko beste hitzarmenik ez duten langileen ehunekoa
- Hitzarmenak luzatuta eta berritzeko zain dituzten langileen ehunekoa
- Hitzarmenak indarrean dituzten langileen ehunekoa


1.2. - 2024RAKO HITZARTUTAKO SOLDATA IGOERAK

1.2.1.- Indarrean dauden hitzarmenetan adostutako soldata-igoerak

Lehenengo seihilekoaren amaieran, EAEn indarrean zeuden hitzarmen kolektiboetan % 3,36ko soldata-igoera adostu zuten 2024rako, batez beste².

Nabarmendu beharrekoa da igoera horrek, gutxi gorabehera, 389.213 pertsonari eragin ziela, langileen % 60,1i. Izan ere, gainerako % 39,9k, ia 258.000 pertsonak, luzapen-egoeran edo indargabetuta zituzten hitzarmenak, aurreko atalean aipatu dugun moduan.

Dena den, badira alde batzuk negoziazio-eremu bakoitzean adostutako soldata-igoeren artean.



Lurralde-eremuaren (EAE/Estatua) araberako analisiak erakusten duenez, EAEn negoziatutako hitzarmenetako batez besteko igoera (% 3,58) handiagoa izan zen EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetan adostutakoa baino (% 2,84).

² Hitzartutako batez besteko igoera honela kalkulatzen da: hitzarmen jakin batean adostutako soldata-igoera, hitzarmen bakoitzaren eraginpeko langile-kopuruaz haztatuta.

Eremu funtzionalei (enpresa/sektorea) dagokienez, sektore-hitzarmenetan adostutako hazkundeak (% 3,40), enpresakoak baino apur bat altuagoak dira (% 3,17), baina kasu honetan aldeak txikiagoak dira.

Halaber, gure komunitatean negoziatutako hitzarmenetan, zein EAEn eragina duten estatuko negoziatioetan, sektore-hitzarmenetan adostutako hazkundeak enpresa-hitzarmenetan adostutakoak baino apur bat altuagoak dira.

1. KOADROA
EAE* 2024AN INДАРREAN DAUDEN HITZARMENETAKO SOLDATA-IGOEREN % (2024KO EKAINAREN 30EKO DATUAK)


	EAEn negoziatutakoak	Estatu-mailakoak, EAEn eragina dutenak	GUZTIRA
Enpresa	%3,35	%2,59	%3,17
Sektorea	%3,63	%2,88	%3,40
Guztira	%3,58	%2,84	%3,36

*EAEn negoziatutako hitzarmenetako eta EAEn eragina duten estatuko hitzarmenetako soldata-igoerak. 2024ko ekainaren 30eko datuak

1.2.2.- 2024an erregistratutako hitzarmenetan adostutako soldata-igoerak

2024ko ekainera arte erregistratutako hitzarmenetan adostutako batez besteko igoera % 4,11koa izan zen. 2024an erregistratutako eta EAEn negoziatutako hitzarmenen kasuan, igoera % 4,38koa izan zen. EAEn eragina duten estatuko hitzarmenetan, berriz, igoera ia ehuneko puntu bat baxuagoa izan zen (% 3,33).

6. GRAFIKOA
EAE* 2024AN ERREGISTRATUTAKO HITZARMENETAKO SOLDATA-IGOEREN % (2024KO EKAINAREN 30EKO DATUAK)



*EAEn negoziatutako hitzarmenetako eta EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetako soldata-igoerak. 2024ko ekainaren 30eko datuak

Eremu funtzionalen (enpresa/sektorea) arabera, enpresa-hitzarmenen kasuan % 3,69koa izan zen igoera; sektore-hitzarmenetan, berriz, 2024an erregistratutako igoera % 4,36koa izan zen.

2. KOADROA
EAE* 2024AN ERREGISTRATUTAKO HITZARMENETAKO SOLDATA-IGOEREN % (2024KO EKAINAREN 30EKO DATUAK)


	EAEn negoziatutakoak	Estatu-mailakoak, EAEn eragina dutenak	GUZTIRA
Enpresa	%3,96	%2,29	%3,69
Sektorea	%4,69	%3,65	%4,36
Guztira	%4,38	%3,33	%4,11

*EAEn negoziatutako hitzarmenetako eta EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetako soldata-igoerak 2024ko ekainaren 30eko datuak

1.3. - HITZARMEN KOLEKTIBOEN INAPLIKAZIOAK³ EAE-N

*Hitzarmen Kolektiboen Erregistroan*⁴ eskuragarri dagoen informazioaren arabera, 2024ko lehenengo seihilekoan 5 inaplikazio ezarri ziren EAEn, eta horiek 52 pertsonari eragin zieten.

Aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, inaplikazio-kopurua % 37,5 murriztu zen (2023an 8 inaplikazio) eta eraginpeko langileen kopurua % 42,2 jaitsi zen (2023an 90 pertsona).



Laneko Autoritatearen aurrean aurkeztutako 5 inaplikaziotik 4 kontsulta-aldietan aldeek lortutako akordioaren ondorio izan ziren.

Inaplikazioaren xede-arloari dagokionez, soldataren kopuruaren gaia, bera bakarrik edo beste gai batzuekin lotuta, presente egon zen 5 inaplikaziotik 4tan, eta 43 pertsonari eragin zien.

Zerbitzuen sektorean gertatu ziren inaplikazio gehien: 2 inaplikazio eta eraginpeko 27 pertsona. Eta industria izan zen

³ Langileen Estatutuko 82.3. artikulua baimendu egiten du aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan aurreikusitako lan-baldintza jakin batzuk enpresan ez aplikatzea, arrazoi ekonomikoak, arrazoi teknikoak, antolaketa arrazoiak edo ekoizpenarekin lotutako arrazoiak daudenean, eta enpresaren eta langileen ordezkarien arteko adostasuna badago. Adostasun batera heldu hezean, hitzarmenaren batzordearen esku utz liteke desakordioa. Batzorde horrek esku hartzen ez badu edo akordio batera heltzen ez badira, alderdiek Precora jo beharko dute. Precok desakordioa konpontzen ez badu, alderdietako edozeinek ORPRICCEren esku utz dezake konponbidea; haren egoitza LHKn dago.

⁴ <http://explotacion.mtin.gob.es/regcon/pv/index.htm>

hurrengoa, 2 inaplikazio eta eraginpeko 18 pertsonarekin. Eraikuntzan inaplikazio bakar bat aurkeztu zuten, eta hark 7 pertsonari eragin zien.

Lurraldearen arabera, Gipuzkoan 4 inaplikazio aurkeztu ziren, 43 pertsonari eragin zietenak; Bizkaian 1, eraginpeko 9 pertsonarekin; eta Araban ez zen inaplikazio bakar bat ere aurkeztu.

Azkenik, aurreko txostenetan adierazi dugun moduan, inaplikazioek eragindako pertsonen kopurua oso txikia da, negozioazio kolektiboaren babespean dauden langileen kopurua kontuan hartuta, eta prozedura aldean arteko adostasunarekin amaitzen da.

LANEKO GATAZKAK ETA ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK


1.4. -GREBAK

Gure erkidegoan gertatu diren gatazkak aztertzen hasi aurretik, kontuan izan behar da 2024ko urtarriletik apirilera arteko greben gaineko datuak bakarrik zeudela eskuragarri txosten hau egiteko unean. Hortaz, aurreko ekitaldiekin alderatzeko, urte bakoitzeko lehenengo lau hilabeteetako datuak hartuko ditugu.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak argitaratutako datuen arabera, 2024ko lehenengo lau hilabeteetan zehar 129 greba zenbatu zituzten EAEn. Horiek 23.425 pertsonari eragin zieten, eta 54.949 lanaldi galdu ziren.

Aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, greba-kopurua % 3,7 jaitsi zen, parte hartutako pertsonen kopurua % 218,7 igo zen eta lan egin gabeko lanaldien kopurua % 30,9 igo zen.

8. GRAFIKOA
EAE. GREBA KOPURUA, ERAGINPEKO LANGILE KOPURUA ETA LAN EGIN GABEKO LANALDIAK. URTARRILA-EKAINA



Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Eusko Jaurlaritza.

Aurreko urtean gertatu bezala, negoziazio kolektiboak jarraitu zuen deitutako greben arrazoi nagusia izaten. Hala, negoziazio-prozesu horiekin lotutako gatazkek eragin zituzten 2024ko greben % 71,3 eta lan egin gabeko lanaldien % 86,7; hala, greben eraginpeko pertsonen % 90,9ri eragin zieten gatazka horiek.

Halaber, sektore-gatazketan izandako gorakada nabarmendu behar da: 2024ko lehen lau hilabete horietan zehar, galdutako lanaldi guztien % 52,5en erantzuleak izan ziren. Lan egin gabeko gainerako egunak enpresa-gatazken ondorio izan ziren. Sektore-greben barruan, Bizkaiko Kirol Arloko Lokal eta Zelaiena (11.000 lanaldi lanik gin gabe) eta EAEko Sektore Publikokoa (ia 7.000 lanaldi) nabarmendu behar dira.

Jarduera-sektorearen arabera, zerbitzuen sektorean egin ziren greben % 62, eta sektore horri zegozkion eraginpeko langileen % 74,8 eta lan egin gabeko lanaldien % 72,3.

Industriako gatazkekin lotuta egon ziren greben % 34,9, eraginpeko pertsonen % 24,8 eta lan egin gabeko lanaldien % 23. Aldiz, eraikuntza sektoreari zegozkion greben % 3,1, eraginpeko langileen % 0,4 eta lan egin gabeko lanaldien guztizkoaren % 4,7.

Bestalde, nekazaritzako sektorean ez zen gatazkarik izan.

1.5. - PRECO-N AURKEZTUTAKO GATAZKAK


Lan Harremanen Kontseiluak Preco akordioa (Lan Gatazkek Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide Arteko Akordioa) kudeatzen du haren hiru lurralde-zerbitzuen bidez. 2000ko otsailaren 16an (66 zenbakidun EHAA, 2000ko apirilaren 4koa) sinatu zuten Preco akordioa Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari handiena duten konfederazio sindikal eta enpresarial guztiek (ELA, LAB, CCOO, UGT eta Confebask).

2024ko lehen seihilekoan zehar, 365 eskaera aurkeztu ziren, aurreko urteko aldi horretan baino 36 gutxiago. Eskaera horiek 65.020 pertsonari eragin zioten (2023an 92.256). Horrek esan nahi du aurkeztutako eskaeren kopurua % 9 murriztu dela aurreko urtearekin alderatuta eta % 30,3 eragindako langileen kopurua.


Aurreko txostenetan aipatu bezala, Covid-19 koronabirusaren pandemiarekin lotutako gatazken ondorioz, 2021ean gora egin zuen aurkeztutako eskaera kopuruak. Kasu askotan, alarma-egoera indarrean zegoen bitartean onartutako araudiaren aplikazioarekin lotutako gatazkekin lotuta zeuden eskaera horiek.

**9. GRAFIKOA
PRECO-N AURKEZTUTAKO GATAZKA KOPURUA ETA ERAGINPEKO LANGILEEN
KOPURUA URTARRILA-EKAINA**

Gatazka kopurua



Eraginpeko pertsonak



2023ko lehen sei hilabeteetan zehar pandemia agertu aurreko ekitaldietan erregistratutako balioak gaintitu ziren arren, bai prozedura-kopuruei, bai eragindako pertsonen dagokienez, 2024an, eragindako pertsonen kopurua pandemia aurreko urteen batez bestekoaren azpitik geratzen da, baina prozeduren kopurua urte horietako batez bestekoaren gaintik dago.

Saioak egiteko moduari dagokionez, 2024an zehar aurrez aurreko bilerak, bilera telematikoko zein bilera mistoak (aurrez aurre eta telematikoki) egin dira, eskatzaileak aukera horien alde egin duenean.

1.6. - ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK

2024ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era enplegu erregulazioko 132 espediente aurkeztu zituzten EAEn, eta horiek 5.227 langileri eragin zieten. Hortaz, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, % 12,6 murriztu zen espediente kopurua (2023ko lehenengo sei hilekoan 151) eta % 47,8 igo zen eraginpeko pertsonen kopurua (2023an 3.537).




Aldi horretan zehar, eragindako pertsonen kopurua nabarmen igo da, adierazi dugun moduan: aurreko urtetik % 47,8 igo da eta langile horietako gehienak industria-sektorekoak izan dira, zehazki, 4.124 pertsona, guztizkoaren % 78,9.

Aurreko urtean bezala, aurkeztutako espediente gehienak arrazoi ekonomikoengatik izan dira (108 espediente) eta 4.811 pertsonari eragin diete, guztizkoaren % 92ri. Aldiz, ezinbesteko arrazoi espedienteek eragindako enpleguak % 5,3 izan ziren eta arrazoi teknologikoei (teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak) eragindako EEEk kaltetutako pertsonak guztizkoaren % 2,7 soilik izan ziren.

11. GRAFIKOA

EAE-N URTARRILETIK EKAINERA AURKEZTUTAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEEN ERAGINPEKO PERTSONAK




Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Eusko Jaurlaritzia.

Eragindako pertsona gehienei, % 91,4ri, aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteak (bertan behera uzteko edo murrizteko ABEEE) ezarri dizkiete, eta ABEEE horien kopurua % 59 igo da aurreko urteko aldi horrekin berarekin alderatuta. Aldiz, lan-harremana bertan behera uzteko espedienteek eragindako langileen kopurua langile guztien % 8,6 izan da, hots, 2023ko lehen seihilekoan baino % 15,6 gutxiago.

2. AFILIAZIOA ETA LANGABEZIA

2.1.- GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA

EAEko Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonen kopurua (aurreko ekitaldiko maiatzean milioi bat pertsonatik gora ziren dagoeneko) 1.019.773 pertsonakoa zen 2024ko lehen sei hilekoaren amaieran⁵, 2013ko abuztuan afiliatutakoak baino 154.305 gehiago. Izan ere, aurreko krisiaren ondorioz, 865.467 pertsonara jaitsi zen afiliazioa (hileko batez bestekoa).



Urte arteko terminoetan, 2024ko ekainean, aurreko urtea baino 16.819 afiliatu gehiago zeuden (+% 1,7). Analisia sexuaren arabera eginez gero, emakumeen batez besteko afiliazioa 2023an erregistratutakoa baino % 2 handiagoa izan zen, eta gizonena % 1,3 handiagoa.

Afiliazioaren gorakada horren arrazoi ia erabatekoa izan da Erregimen Orokorreko kotizatzaileen kopurua igo egin dela: 18.052 afiliatu gehiago (+% 2,3). Izan ere, Besteren Kontura Lan Egiten duten Itsasoko Langileen Erregimen Bereziaren (4 afiliatu gehiago) eta Nekazaritzako Sistema Bereziaren (108 afiliatu gehiago) kasuan izan ezik, gainerako erregimenetan beheraka izan da.

⁵ Gizarte Segurantzak 2024ko uztailearen 15ean argitaratutako datuak.

3. KOADROA
GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIATUAK EAE-N, ERREGIMENAREN ARABERA
(HILEKO BATEZBESTEKOA)

	LANGILEAK. AUTONOMOAK	ITSASOKO LANGILEEN ERREGIMEN BEREZIA (Besteren kontura)	ITSASOKO LANGILEEN ERREGIMEN BEREZIA (Norbere kontura)	R.E.T.A (NEKAZARITZAKO LANGILEEN SISTEMA BEREZIA)	ERREGIMEN OROKORRA (ETXEKO LANGILEEN SISTEMA BEREZIA)	ERREGIMEN OROKORRA (NEKAZARITZAKO LANGILEEN SISTEMA BEREZIA)	ERREGIMEN OROKORRA	SISTEMA GUZTIRA
2022ko eka.	165.902	3.803	307	3.839	28.241	2.891	782.197	987.181
2023ko eka.	164.147	3.863	289	3.728	28.577	2.401	799.948	1.002.954
2024ko eka.	163.658	3.867	263	3.617	27.860	2.509	818.000	1.019.773
Aldea 2024-2023	-489	4	-26	-111	-717	108	18.052	16.819
Aldakuntza % 2024/2023	-0,3	0,1	-9,0	-3,0	-2,5	4,5	2,3	1,7

Iturria: Gizarte Segurantza.

Puntu honetan komeni da zehaztea 2023ko ekainaren eta 2024ko ekainaren artean Erregimen Orokorrean izandako afiliazioaren gorakadaren (+18.052 pertsona) gehiengoa sektore pribatuko soldatapeko langileen hazkundearen ondorio izan dela, 11.335 afiliatu gehiago izan baitziren. Aldiz, enplegu publikoan 6.717 afiliatu gehiago izan ziren.

4. KOADROA
GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIATUAK EAE-N, KONTRATU MOTAREN
ARABERA (HILEKO BATEZBESTEKOA)

	Mugagabea - Lanaldi osoa	Mugagabea - Lanaldi partziala	Aldizkako finkoak	Aldi baterakoa - Lanaldi osoa	Aldi baterakoa - Lanaldi partziala	Ikaskuntza, Formakuntza- eta Praktikak	Beste batzuk (*)	GUZTIRA
2022ko eka.	419.576	91.119	17.152	114.965	56.448	7.972	74.966	782.197
2023ko eka.	448.193	102.240	24.176	101.632	42.537	6.661	74.510	799.948
2024ko eka.	461.922	105.581	24.166	98.194	42.976	4.989	80.172	818.000
Aldea 2024-2023	13.729	3.341	-10	-3.438	439	-1.672	5.662	18.052
Aldakuntza % 2024/2023	3,1	3,3	0,0	-3,4	1,0	-25,1	7,6	2,3

(*) Barne hartzen ditu kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zaintzaile ez-profesionalak eta akats edo ez-egite baten ondorioz fitxategian kontratu- mota agertzen ez zaien horiek. Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne; kanpoan uzten ditu nekazaritzako eta etxe langileen sistema bereziak.

Iturria: Gizarte Segurantza.

Erregimen Orokorrearen afiliazio-kontratu motaren araberako azterketak erakusten du jaitsi egin dela lanaldi osoko aldi baterako kontratuarekin afiliatutako pertsonen kopurua (-3.438) eta, hein txikiagoan, ikasten, formakuntza jasotzen edo praktiketan daudenen kopurua (-1.672), 2023ko ekaineko datuekin alderatuta. Aldiz, igo egin da lanaldi osoko zein lanaldi partzialeko kontratu mugagabearekin afiliatutako pertsonen

kopurua (+13.729 eta +3.341, hurrenez hurren) eta “Beste batzuk” kategoriaren barruan dauden pertsonen kopurua, gehienbat funtzionarioek osatua (+5.662).

Bestalde, erregimen orokorrean aldizkako kontratu finkoarekin afiliatutako pertsonen kopurua ez da ia aldatu (-10 pertsona).

13. GRAFIKOA

EAE. LAN-KONTRATUA DUTEN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATUTA DAUDEN SOLDATAPEKO LANGILEEN BANAKETA, KONTRATU MOTAREN ARABERA, BESTE BATZUK KENDUTA (HILEKO BATEZBESTEKOA)



Iturria: Gizarte Segurantza.

Gure analisia Erregimen Orokorrean lan-kontratuarekin afiliatuta dauden langileetara mugatzen badugu, eta “Beste batzuk” ataleko pertsonak (esan dugun moduan, gehienak funtzionarioak dira) eta ikaskuntza-, formakuntza- eta praktika-kontratuak dituztenak kontuan hartzen ez baditugu, kontratu motaren arabera afiliazioaren banaketan ez da ia alderik izan 2023ko ekainaren eta 2024ko ekainaren artean.

- Lanaldi osoko kontratu mugagabea duten pertsonen ehunekoa apur bat igo da, % 62,4tik % 63ra.
- Lanaldi partzialeko kontratu mugagabea duten pertsonen kopurua bi hamarren igo da eta 2023ko ekainean afiliazioaren % 14,2 izatetik % 14,4 izatera pasatu da.
- Aldizkako kontratu finkoa duten pertsonen ehunekoa berdin mantendu da ia (2024an guztizkoaren % 3,3) eta lanaldi osoko


aldi baterako kontratua duten pertsonen kopurua 2023an % 14,1 izatetik 2024an % 13,4 izatera igaro da.

Ondorioz, kontratu mugagabea duten pertsonen kopurua apur bat igo da; 2023ko ekainean, soldatapeko herritarren % 80k zuen kontratu mota hori eta 2024ko ekainean, % 80,7k. Aldiz, aldi baterako kontratua duten langileen ehunekoa apur bat murriztu da eta % 20tik % 19,3ra jaitsi da. Lanaldi osoko aldi baterako kontratuak dira beherakada horren arrazoia.

Ondorio gisa, Gizarte Segurantzako datuek erakusten dute EAEn afiliatutako pertsonen kopurua igo egin dela: milioi bat pertsonatik gora daude afiliatuta. Gorakada hori Erregimen Orokorreko afiliazioaren hazkundearen ondorioa da, lanaldi osoko kontratu mugagabea duten pertsonen kopurua apur bat igo baita.

2.2.- LANGABEZIA TASA

Eustaten Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkestaren (BJA) arabera, EAeko langabezia tasa % 7,5koa izan zen 2024ko bigarren hiruhilekoan. 2023ko laugarren hiruhilekoa kenduta (langabezia-tasa % 7,2koa izan zen), 2008raino atzera egin beharko genuke tasa baxuagoa aurkitzeko.



Sexuaren arabera, gizonen langabezia-tasa (% 7,3) emakumeen tasaren azpitik dago apur bat (% 7,6), eta urte batetik bestera izandako bilakaerari dagokionez, jaitsi egin da emakumeen kasuan (2023ko bigarren hiruhilekoan % 7,8) eta berdin geratu da gizonen kasuan.